



Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

Demokrazia: hautestontziez harago



© QUINO

Lau urtean behin, hiritargoa bere izenean legeak egin eta gobernatuko dutenak aukeratzera deitua izaten da. Demokrazia, ordea, bozkatzea baino gehiago da: elkarrekin bizitzeko eta antolatzeko modua da, gizakien duintasuna adierazten eta posible egiten duena.

Global Express-ek demokrazia gaur egun nola dagoen aztertzeko elementuak eskaini nahi ditu eta proposamen batzuk agertu gaur aurrez aurre dugun erronka nagusiarantz erantzuteko: hiritartasun parte hartzaile eta librearen eratzeari.



- ☐ Hauteskundeak, politikan parte hartzeko era bat
- ☐ Hiritartasuna, garatzen doan kontzeptua
- ☐ Hiri bat, mundu bat
- ☐ Kontsumitzaileetatik hiritarretara
- ☐ Demokrazia eta partaidetzarako trabak
- ☐ Hiritartasuna ikasi egiten da

Hauteskundeak, politikan parte hartzeko era bat



Hauteskundeak “demokraziaren jai” legez agertzen dizkigute komunikabideek, eta bozkatzea partaidetza politikoa adierazten eta antzezten duen erritua bailitzan. Gure izenean legeak egin eta gobernatuko dutenak aukeratzen ditugun modua da hain garrantzi handiko gertakari bihurtzen duena.

Aldez aurreko kanpainan, alderdiek beren programak agertzen dituzte. Argitasunez eta sinesgarritasunez azal ditzaten exiji daiteke, informatzailearen antzera, ez produktua saldu nahi duenaren antzera: partaidetza politikoa propagandarekin nahastea ez da bidezko. Informatzeko erantzukizuna, ordea, hiritarrei dagokie, ezin direlarik lelo eta proklamekin konformatu. Bestalde, hautagaiei iritziak eta eskaerak helarazteko aukera ezin hobea da –ez bakarria–. Hauxe da Intermón Oxfam, Greenpeace eta

Amnistía Internacional taldeen ekimenaren asmoa, martxoaren 14an hautestontzietatik irtengo den gobernuari giza eskubideekiko, ingurugiroaren errespetuarekiko eta pobreziaren aurkako borrokarekiko konpromisoa eskatzea. Ekimen hauekin bat egiteko aukerak hauteskundeetan zabalago parte hartzeko aukera ematen du eta edukiz betetzen ditu.

Horrela bada, hauteskundeak ordezkari eta ordezkatuaren arteko konpromisoa bihurtzeko daitezke, hartzen diren erabaki politikoen begiztapen adi eta zorrotzean izan behar dutelarik jarraipena. Demokrazia bozkatzea baino gehiago badelako: gizarteak antolatzeko eta aurrera egiteko modu bat da, zeinetan pertsona orok parte hartzen duen beregan eragina izango duten erabakietan.

Demokrazia eta hiritartasuna



Demokraziaren kontzeptua eta praktika, gure kulturaren, Grezia klasikoko hiri-estatuetan sortu zen, terminologia bera ere handik datorrelarik. Demokrazia hitzak bi hitz ditu jatorrian, herria (demos) eta subiranotasuna, boterea (krotos) esan nahi dutenak; politika hitzak sistema hori garatu zen lekua aipatzen du, hiria (polis).

Hitzek beren garrantzia daukate haietan gordetzen delako denboran zehar gaur egungo demokraziara heldu arte garatu izan dena, artean gaitasun osoa agortu ez duelarik, ezta gutxiago ere.

Grezia klasikoan guztiek ezin zuten hiriko gobernuan parte hartu; emakumeak, umeak, esklaboak baztertua zeuden. Izan ere, herria adierazten duen hitzak hiritar askeak baino ez ditu

aipatzen, subjektu politikoa zirenak.

Erroma inperialak **subjektu politikoak** eta inperioaren boterearen **azpian diren subjektuak** ezberdintzen zituen. Lehenak, Erromako hiritarrak, hasieran hiriko (Erroma) biztanle libreak baino ez ziren; geroago, hiritartasun eskubidea inperioko beste lurralde batzuetara zabalduz joan zen. Kontzeptua, ordea, ez zen aldatu: hiritar ez direnak esklabo dira (mugaren barruan) edo barbaroak (mugaz kanpo), zeintzuen izena erromatar zibilizatuen belarriei ulertezin gertatzen zitzaizen hizkuntzaren soinuak adierazten duen onomatopeia den.

Demokrazia, partaidetza eta hiritartasuna hasiera-hasieratik batuta datozen hiru hitz dira.

Hiritartasuna, garatzen doan kontzeptua



Demokrazia ez da bakarrik erregimen politiko jakin bati dagokion arau multzoa eta usadioa. Antolatzeko modu bat da, elkarrekin haztekoa, gizakiak elkarrekin bizitzeko era, propio dituzten ezaugarriez: askatasuna, erantzukizuna, autonomia, berdintasuna. Beraz, eraikitzen den zerbait da. Esan daiteke demokrazia helmuga dela eta, batez ere, bidea: denon ongizatea eraikitzen eta gestionatzen hartzen da parte.

Gaur egungo hiritartasun kontzeptura iristea prozesu luzea izan da baita ere, mingarria batzuetan, eta ez beti zuzena eta goranzkoa, kontzeptua erabili bitartean ari delako eraikitzen. Hiritartasun eskusibotik –hiritarra nor den eta nor ez ezberdintzen duena– kontzeptu irekiagorako prozesua.

Greziar eta erromatar demokrazietatik, edozein biztanlerengana iristen ez zena, Frantziar Iraultzaraino, Erdi Aroko estamentuetan banatutako meneko eta jauntxoaren gizartearen tarte, alde handia dago. Herria meneko izateetik hiritar izatera pasatu zen, ez greziar hirietan bezala; aitzitik, herria hiritar libreen taldea izan beharrean, herria oso-osorik hiritar libreen multzoa da (teorian behintzat eta gizonezkoentzat, emakumeak baztertua jarraitzen baizuten).

Orduz geroztik, hiritartasunaren mugak zabalduz joan dira, unibertsalago egiteko prozesuan, zentzu zabalean.

Hiri bat, mundu bat

Hiri bat, mundu bat



Globalizazioaren garai honetan, demokrazia globalizatzea dugu lana, hiritartasun unibertatsala eratzea: gizaki guztiak gara subjektu. Parte hartzea, "hiri globala" eraikitzea da, "konstituzioa", hasieran behintzat, Giza Eskubideen Hitzarmen Unibertatsala izan dezakeena. Hiritartasun kosmopolita hau (mundu osoa batzen duen hiria), definizioz, irekia izango litzateke; hortaz, **edozein bazterketari aurka egitea litzateke hiri globalaren eraikuntzan parte hartzeko modua.**

Hiritartasun baztertzalea, kanpoan eta barruan nor den seinatzen duenez gero, bestearen aurka eraikitzen da; aitzitik, hiritartasun globala bestearekin baino ezin da eraiki, **beste denekin.** Jada Hobbesen "gizakia otsoa da gizakiarentzat" modaz kanpo dago, Kant bera ere eta askatasuna definitzeko bere modua, bestearen askatasunean dago bakoitzarenaren muga, baliogabe geratzen da hiritartasun globalean. Capella zehatz adierazten du zera esatean "besteek mugatzailea ez beste betekizun bat dute gure askatasunarekiko; aurkakoa hain justu" ¹.

Illo horretan, ez du ematen norgehiagoka izan daitekeenik elkar bizitzarako eredia. Gaitasuna (trebetasuna, kaudimena) jarri beharko litzateke modan, elkarlanerako hain komenigarri dena guztion helburuak lortzeko; hobeto esanda, ez norbanakoen

ongiaren batuketa, ez taldearen interesa (edozein motatako korporatismora daramana) ez den **denon ongizatea** eraikitzeko, guztiona delako, hain zuzen, ona dena.

Demokrazia, konpartitutako proiektu legez, guztion ongiaren kontzeptutik hain hurbil, ezin da **erantzukizunetik eta norbere konpromisotik** banandu. "Bakoitzaren eta guztion interesen arteko identifikazioa ez da berezko gauza, askatasunetik eraikia izan behar du, askatasun positiboa, erantzukizun solidarioa eta sortzailea barnean daramana" ².

Denon erantzukizunak esan nahi du besteekin konpartitzen dela eta besteekiko erantzun behar dela. Alegia, ez da norbanakoen kontua, bakoitza bere kontzientziarekin bakarrik, pertsonala bada ere, erantzukizuna solidarioa delako, benetakoa, pertsona bakoitzak konpromisoa hartzen duen neurrian. Konpartitutako proiektua denez gero, **etika demokratikoari** lotuta dator, hiritartasunaren balioekin bat datorrena eta benetako hiritarren jokabideen oinarrian dagoena, alegia. Bata eta beste gabe, demokrazia aipatzea formalismo hutsa litzateke, edukirik gabeko diskurtsoa.

Esandako guztiak globalizatutako munduko garapen eredia, bizimodua eta baloreei buruzko galdera batzuk sortzen ditu.

Kontsumitzaileetatik hiritarretara

Kontsumitzaileetatik hiritarretara



Bada trabarik bide honetan, "hiria", hiritartasuna egiteko eta jostatzeko gunea, merkatu bihur daiteke. Honek garrantzi handiko inplikazio zibikoa eta politikoa du : dagoeneko ez gara hiritarrak, kontsumitzaileak baizik, protozoo espezie berri bat, giza itxurakoak, irensteko baino bizi ez garenak, zentzurik zabalenean, lagunartekoak barne. Eta gauza materialez haragoko zentzuan; kontsumismoa, portaera, usadio eta balore multzoa baita, gizartea eta ekonomia antolatzeke modua eta norbanakoen portaera, etika, estetika modu bat ere bada.

"Kontsumoarena" izena hartzen duen gizartean, kontsumitzea (edo ez kontsumitzea, edo modu berezi batez kontsumitzea) parte hartzeko modua da. Are gehiago, esan daiteke, zabalago, kontsumitzeko gaitasunak egiten gaituela subjektu politiko, administrazio formalitasunez harago. Horrek esan nahi du **hiritarren boterea erosketara boterera** mugatuta dagoela, botere nagusia bihurturik, beharrezkoa, kontsumo gizarteari dagokiona. Kontsumorako ondasunik ezin eskura ditzakeena ez da inor, hutsala da, ez dauka zer eginik, ez dauka zer esanik. Ikusezina da.

Kontsumo gizartean hiritartasunak abdikatu duela esan daiteke (abdikatu subiranotasuna duenak baino ezin du egin)

merkatuaren alde, hiritartasun ekonomikoaren benetako jabea. "Hiritartasun ekonomiko hau –dio Saskia Sassenek- ez da hiritarren ezartzen, baizik eta enpresa eta merkatuetan, bereziki finantza merkatu globaletan, eta ez da hiritarren kokatzen, baizik eta ekonomiako agente globaletan. Globalak direnez gero, norbanakoen gobernuen gaineko boterea ematen zaie agenteoi" ³.

"Merkatua" aipatzea ez da zuzen, lurrikararen ondorioz hildakoengatik Natura errudun hartzea bezala litzateke (gubernariak, egokiak ez diren lekuetan eraikitzeko planak egiten dutenak, eraikitzaileak etab. salatu orde) ondorio berberekin: horren aurka ezin daiteke ezer. Ez da merkatua, zuzentzen dutenak baizik, abdikazioetarako momentu honetan, erabaki gutxi hartzen dutenak bozkatzeko ditugulako eta ez ditugu bozkatzeko ezagun izan ez baina erabakiak hartzen dituztenak.

Horregatik, **kontsumo kritikoa eta artikulatua politikan parte hartzeko modu bat da, hiritartasun kosmopolitan aritzeko era**, globalizatutako mundu honetan eragin globala baitu: bidezko merkatarritza, Iparr-Hegoa harremanak, etab.

¹ Capella, Juan Ramón: *Los ciudadanos siervos*. Trotta. Madril, 1993.

² OLLER, M. Dolores: *Ante una democracia de "baja intensidad". La democracia a construir*. Cuadernos CiJ, 56 znba.artzelona, 1994.

³ Sassen, Saskia: *¿Perdiendo el control?. La soberanía en la era de la globalización*. Ed. Bellaterra.artzelona, 2001. 55. orri



Hiritarren gizartea eraikitze lanak traba handiak topatzen ditu garapenerako baldintzetan eta subjektuetan beraietan ere, batzuetan gure aukerei uko egiten baitiegu. Benetan, bi sailetan banatzea metodologia kontu baino ez da, elkarrengan eragina dutelako: baldintza desegokiek kanpoan geratzeko joerako subjektuak sortzen dituzte, ardurarik gabeko hiritargoak ez du partaidetzarako girorik sortzen.

Trabek lotura handia dute baloreekin: merkatuaren baloreak ezarri zaizkigu, demokraziaren aurkakoak nahiko: norgehiagoka elkartasuna eta elkarlanaren orde; doakotasuna norbere interesaren orde.

Hiritartasuna eskubide arazoa da eta –gehiago ia- erantzukizun arazoa, boterea eta eskubideak erabiltzea eta gozatzea, finean. Capellak dioenez, hiritar zerbitzariak (kontraesaneko hitzak) botererik gabeko eskubide subjektuak dira. Boterea (hiritarra) kendu egiten digute eta abandonatu egiten dugu. Horretan laburbil daitezke demokraziarako trabak.

Baldintza objektiboetatik

- Diskurtsoak aldarrikatzen duen berdintasunaren aurkako diren **benetako desberdintasun** eraginkorrak: ezin egon daiteke berdintasuneko hartu-emanik boterearekiko, baliabideak eskuratzeko, jakinbideekiko etab. egoera desorekatuan daudenen artean.
- Partaidetzarako bide egokiak bermatzeko **mekanismo falta**. Bozkatzeko iritziak eta hobespenak adierazteko modu bat da, baina badira beste asko, edo asmatu beharko dira, pertsona guztien iritziak eta hobespenak benetan eraginkor izan daitezkeen guztionak diren arazoetan.
- **Domeinurako forma berriak**, herritarren kontrolerako, "gabezia sentimendua sortzeko medioak" (publizitatea, zabal hartuta) lan bikaina egiten dutelarik eta pentsamolde bakarretik

kanpo beste modu batera pentsatzeko debekurako. Zentzura ez beste modu sotilagorik bada askatasuna mugatzeko, ikuspuntuak eragoztearekin eta aniztasuna eta desberdintasuna arazoa bailitzan aurkeztearekin zerikusirik dutenak.

Subjektuenak

- **Absentismoa** gure arazoa diren gauzekiko, guztion ongiarekin zerikusia duten gauza guztiak direlarik. Honek esan nahi du ekintza arlo pribatura mugatuta dagoela; guztiona den arlorako denborarik, ezelako baliabiderik, irudimenik, mediorik ez erabiltzea.
- Erantzule garen espazioan gertatzen ari denaren **ezjakintasuna**. Buruak eta kontzientziak domeinatzeo forma berriak erraz erabiltzen dira espazio publikoa alde batera uzten duen biztanleriarengan, gero eta ezabaturik dagoelarik espazio publikoa eta arazo pribatuez beteta, barru-barrukoak ere, inoren interesekoak izan behar ez dutenak, telebista kateen programazioek eta audientzia indizeek argi adierazten dutenez. Informazioa sobera dagoen munduan, pentsamendua elikatzeko moduaren erantzule gara, zein iturri darabilgun informatzeko, pentsatzeko modu batek egiteko modu batera eramaten duelako.
- **Axolagabekeria, sentsibilitatea** hezi daitekeelako. Zentzuak segun zertarako adiago ala lo ditugu, batez ere, mugitzen garen inguruaren arabera, zer edo nortzuk ditugun hurbilen edo urrunen kontutan hartuta. Honetan oinarritzen dira hiritarrek elkarrekiko dugun erantzukizunetik axolagabekeria modu guztiak. Arabiar atsotitzak dioenez "zerbait egin nahi duenak bidea topatzen du. Ez duenak ezer egin nahi, aitzakia topatzen du".



"Hiritartasuna –Herrera eta Rodríguezek idatzita- inguru ezberdinetan askatasunez ibiltzeko bide demokratikoak sortu eta erabiltzeko aukera eta gaitasuna da." Ezin da demokrazia arlo politikora mugatu –oso garrantzitsua izanik ere- edo noizbehinka bozkatzera. Ezin dugu geure burua hiritartzat izan eta beste arlo guztiak alde batera utzi. Azken finean, "denek boterea izan eta inor ez zapaldua gertatzeko" egiteko modu

batez ari gara mintzatzen ⁴.

Zeintzuk arlotan demokratikoki parte hartu behar den galderari erantzutea erraza da: guztietan. Hori bai, batzuk eta besteak ezberdintzen jakiteko eta arau zuzen eta egokiak ezartzeko baldintzapean. Edozein kasutan, parte hartzea erantzule izatea bada, ezin da ezer alde batera utzi: familia, lagun taldea, egokitasun taldeak, ikastetxeak, lana, etab.

⁴ Aguilar, T. y Caballero, A. (ed.): *Campos de juego de la ciudadanía*. El Viejo Topo. Barcelona, 2003. 50. orr

Hiritartasuna ikasi egiten da



Hiritartasuna prozesua da. Horrek esan nahi du, alde batetik, erlijentzia aldagarria izan ez ezik, gorantz egiten duela denboraren poderioz; beste alde batetik, erabiltzen ikasi behar dela, erabilerarekin, hain zuzen.

Hiritarraren hezkuntzak arlo guztiak jorratzen ditu: gure **ekintzetan** frogatzen diren **pertzepzio eta balorazioena**.

Ikasi egiten da, Adela Cortinak ondo dioenez, "dastatzen. Hiritar baloreak dastatzeko beharrezkoak diren gaitasunak lantzea (intelektualak eta sentzorialak) lekuan lekuko hiritartasunean eta unibertsalean hezte da."⁵

Hortaz, **inguru eta egitura** jakin batzuk behar ditu, partaidetzarako erabat irekiak ez badira, irekitzeko joera daukatenak. Partaidetza bultzatzeko **metodoak** behar ditu, bestela "dastatzea" ezinezkoa izango delako.

Horrek metodologiak eta prozedurak ikasi behar direla esan nahi du, jakina, baina, batez ere, hiritartasunaren oinarriko baloreak dastatzea, gizarteak debora luzean zehar ikasitakoaren fruituak:

- **Askatasuna**, zentzu zabalenean: arazo publikoetan partaidetza, irizpide propioa izan eta hartan oinarritu ahal

izateko independentzia eta autonomia (moral autonomoa).

- **Berdintasuna**, eskubideetan, aukeratan, laguntzatan eta, batez ere, ezelako ezberdintasunak mugatu gabeko duintasunean.
- **Errespetua**, balore aktiboa, pertsonen artean eta gizartearen harremanetan jartzeko modua, bestearekin konpromisorik hartu gabe bizi eta bizitzen uzten duen tolerantzia pasiboaz harago.
- **Elkartasuna**, ez korporatibismoaren zentzu mugatuan, baizik eta besteekin "gorputz egitea" legez, guztion proiektuarekin, hiritartasun unibertsalean guztion ongia izango denarekin, bazterketarik onartzen ez duenarekin konpromisoa hartzea.
- **Elkarrizketa**, gizarte demokratikoan berdinaren artean harremanak izateko modua: benetakoa eta bidezkoa dena topatzeko lan kooperatiboa.
- **Erresistentzia**, berezko hiritar bertutea, men egitearen kontrako: gehiegikeriaren aurka bortizkeriarik gabeko metodoen bidez egitea, bultzada eta laguntza ukatuz.

Mundu pozgarria?

Aldous Huxleyren Mundu Pozgarria eleberriak gatazkarik gabeko gizartea nolakoa izango litzatekeen azaltzen du: moldatutako pertsonak, desira, pentsamendu eta ekintza uniforme eta kontrolatuez. Gatazkak izen txarra du askotan bortizkeriarekin nahasten delako, nahiz ez izan zerikusirik. Gatazka gizakien berezko ezaugarria da, helburu bateraezinak edo bateraezintzat hartuak dituzten pertsona edo giza taldeen arteko harremana baita. Eta gizakiek ezaugarriaren bat komunean izatekotan, horixe aniztasuna da.

Maizegi erantzuna bortizkeria izaten da, ezmorala ez ezik, alferrekoa ere badena, gatazkak konpontzeko edo gestionatzeko asmoa badu, behintzat. Bortizkeriaz ez gara gatazkak konpontzeko bidea topatzen ari, anulatu besterik ez dira egiten aurkakoa desagerraraziz.

Badira, ordea, aurre egiteko beste modu batzuk, kontzeptualki eta praktikoki, beren gaitasun handia "hiritartasun aktibo eta askatzailea bultzatzeko eta edukiz betetzeko" darabiltenak eta "gatazka hiritartasunaren eraikuntza publikorako leku izateko erreperatzea" dakartenak. (Pedro Sáez)⁶

Gatazkak aztertzen eta aurre egiteko orduan ezkor ez izaten ere ikas daiteke (lehenik, mendetan ibilitako kontrako bidean atzera eginez). Metodoak badaude (erabakiak hartzea, negoziazioa, kontzertua bultzatzea, bitartekaritza,...) eta hainbat ekimen martxan. Egizu bat haiekin, edukiz bete itzazu, zabaldu, bultzatu, hiritartasun berria, elkarbizitzarako, pertsonen arteko harremanetarako, ekonomikoetarako, gizarte eta politikarako, kooperatiboak eta kompetentziarik gabeko, bazterturik eta baztertzeko modurik gabeko ereduak sortzen laguntzeko bide gomendagarriak dira. Alegia, erabaki, negoziatu, eta akordioetara heltzen den jendea, men egiten ez duena eta inor menean hartzen ez duena.

⁵ Cortina, A.: *Ciudadanos del mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*. Alianza. Madrid, 1977.

⁶ Aguilar, T. y Caballero, A. (ed.): *Campos de juego de la ciudadanía*. El Viejo Topo. Barcelona, 2003. 50. orr

Kanpo zorraren aurkako kanpaina, parte hartzeko ariketa

Kanpo zorra ekonomista eta komunikabideetako ekonomia sailetako kontua zen. Baina 90ko hamarkadaren bigarren erditik aurrera kaleko jendearen ahotik aipamenak entzuten hasi ginen. Zer gertatu zen? Gero eta jende gehiago eta talde gehiago mobilizatu zela ekonomian espezializatutakoena ez, baizik eta milioika pertsonaren arazoa zenarengatik, batez ere pobretutako herrietan.

Ekimen ezberdin batzuk gurutzatu ziren iritzi publikoari herrietako bizimoduaren kalitatean eta etorkizunerako plangintzan eragin zuzena duen arazoari buruzko informazioa helarazteko eta mobilizatzeko lanean. Estatu espainolean egindako kanpaina hauek, beste herrietakoekin bateratuta egon izan dira hasieratik, lekuan lekuko lana ikuspegi globalarekin egokiro lotuz.

Kanpaineek ahalegin handia egin zuten arazoa zein zen eta zenbat larria den **informatzen**, kaleko jendearekin duen lotura ere azaltzen, irtenbidea –edo larriagotzea – gure hautestontzietan aukeratutako politikarien eskuetan baitago.

Informazioaren ondoren, **mobilizazioa**, ekintzarako aukerak eskainiz, gobernari eta legegileei ordezkatzan duten herriaren borondatea zein den agertzeko, Espainian RCADE-k⁷ antolatutako 2000ko martxoaren 12ko erreferenduma aipagarri izan zelarik, non 1.100.000 pertsonak hartu zuen parte. Mundu osoan, ia 25 milioi pertsonak sinatu zuen zorraren aurka. Mugimendu ikaragarriari hasiera eman eta hiru urte geroago, 60 milioi pertsona ziren mobilizatutakoak.

Kanpaina hauek demokrazia globalaren eta hiritarren partaidetzaren adierazle dira: herri aberatsetako biztanle askoren eguneroko arduren artean ordura arte inorena ez zen arazoari tarte egitea lortu izan dute, hain zuzen demokrazia benetako izaeran egiten, parte hartuz eta erantzule izanez, alegia. Gainera, arazoa gaur egungo Ipar-Hego harremanetan kokatuz, kanpo zorra kondonatzearen aldeko kanpaineek herrien arteko harreman injustuak direla eta, gizarte kontzientzia nabaria piztu dute.

Bultzada ez da kanpainarekin gelditu, parte hartzen partaidetzaren bidez ikasten dela frogatuz. Zorraren inguruko arazoetan sentsibilizatutako pertsona eta talde kopuru handia izan dugu lanaren ondorioa, eta harago hortik; azkenean, hiritartasun globalaren erantzukizunarekin eta gaitasunekin lotuta dago.

“Lortutako eragin publiko eta politikoa –idatzi du Jaime Atienzak– hiritarrek erabaki politikoetan parte hartzeko gaitasunaren berri ekarri digu, edozein kasutan; gaur egungo herri aberatsetako demokrazia mediatikoaz ikuspuntu kritikoa izan arren, zirrikituak aurkitu izan dira, lanaz, ekinaz eta ekintza masibo eta kontzertatuaren bidez, fruiturik lor daiteke erabaki politikoak hartzen dituztenengan eragina izateko orduan.”⁸

www.observatoriodeuda.org

⁷ RCADE, Red ciudadana por la abolición de la deuda externa.

⁸ Atienza, J.: *La deuda externa del mundo en desarrollo*. Akal. Madril, 2002.

Gehiago jakiteko...

Gehiago jakiteko...

Liburu eta foiletoak

El proceso de globalización mundial. Hacia la ciudadanía global.

ARANGUREN, Luis A. Eta beste batzuk
Doc. Intermón. Bartzelona, 2000.

Ciudadanos del mundo.

CORTINA, Adela
Alianza Editorial. Madril, 1997.

Ante una democracia de "baja intensidad".

La democracia a construir.

OLLER, M. Dolores
Cuadernos CiJ, nº 56. Bartzelona, 1994.

Un futuro para la democracia. Una democracia para la gobernabilidad mundial.

OLLER, M. Dolores
Cuadernos CiJ. Nº 115. Bartzelona, 2002.

El bien común. Elogio de la solidaridad.

PETRELLA, Ricardo
Debate. Madril, 1997.

Educar en y para los Derechos Humanos.

SEMINARIO DE EDUCACIÓN PARA LA PAZ
Los libros de la Catarata. Madril, 1996.

Zinema:

La estrategia del caracol. Sergio Cabrera. Kolonbia, 1994. 107 min.

Esta tierra es mía. Jean Renoir. Ameriketako Estatu Batuak, 1943. 103 min.

El gran dictador. Charles Chaplin. Ameriketako Estatu Batuak, 1940. 124 min.

Kirikú y la bruja. Michel Ocelot. Frantzia-Belgika-Luxenburgo, 1998. 71 min. Animazio irudiak.

HormigaZ. Eric Darnell y Tim Jonson. Ameriketako Estatu Batuak, 1998. 83 min. Animazio irudiak.

Web orriak:

www.pangea.org

www.nodo50.org

www.attac.org

www.forumsocialmundial.org.br

www.bcn.es/encontreciutada/castellano/index.htm

**Sar zaitetz gure web-gunean
eta behera kargatu
¡¡global express!!**

www.IntermonOxfam.org/educar/global

Global Express-ek galderak eragin eta sortu nahi ditu gure eskoletako ikasleen artean, komunikabideetan esaten dutenaz. Errealitatearen ikuspegi kritikoa sustatu nahi dugu, ikasleek munduaren egoera, bereziki, garapen bidean dagoen munduaren egoera ulertzeko aukera izan dezaten.

Global Express ondoko talde hauen ekimena da: Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Curriculum Development Unit (Irlanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Intermón Oxfam (Espainia). Global Express-ek AECl-ren diru laguntza jaso du

